

Gobernuak ezarri du Nafarroako ikasleek lanaldi jarraitua izango dutela urritik aurrera, COVID-19en aurkako segurtasun protokoloaren parte gisa

Hezkuntza Departamentuak 47 milioi euro bideratuko ditu prebentzioko ezohiko jardueretarako eta errefortzurako hezkuntzaren kalitatea berma dadin datorren ikasturtean

Ostirala, 2020ko Abuztuaren 21a

Nafarroako ikastetxe guztiak lanaldi jarraitua hartuko dute urrian, COVID-19ko pandemiari aurre egiteko neurri gisa. Hala jakinarazi du Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak, Santos Induráin Osasun kontseilariarekin batera emandako prentsaurrekoan, 2020/2021 ikasturtearen hasiera nolakoa izango den azaltzeko.

Nafarroako Gobernuak diseinaturiko Hezkuntza Jardueraren Prebentzio eta Antolaketa Protokoloaren neurrietako bat da hori. Protokoloak, besteak beste, Haur Hezkuntzan ratioa gutxitzea aurreikusten du, ikasgelako gehienez ere 20 ikasleko muga ezarriz; eta Lehen Hezkuntzako 5. mailatik gorako ikasleak behartzen ditu gela barnean maskara jantzita izatera. Jantoki-zerbitzua asteke egun guztietan bermatuko da, baita asteazkenetan ere.

Hezkuntza Departamentuaren esanetan, ikasturteari begira eginen diren COVIDaren ondoriozko jarduketan kostua 47 milioi eurokoa izanen da. Horien artean, 666 irakasle eta jantokietarako 200 zaindari inguru kontratatzea, eta 9.000 ordenagailu, 1.000 kamera eta 500 tablet erostea, garbiketa indartzeaz eta prebentziorako ekipamendua eskuratzeaz gain.

Neurri horiek guztiak uztartu eginen dira Osasun Hezkuntzak COVID-19 positiboak eta balizko kutsatzeak atzemateko ezarri dituenekin. Hartara, positibo bat balego Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 4. mailara

coronavirus.navarra.es
CURSO 2020/21

Volvemos

Este curso, la seguridad es la asignatura más importante

Sí, volvemos a las aulas.
¡Qué ganas teníamos! Todo está preparado.
Para volver a enseñar y aprender, cada comunidad escolar debe seguir el protocolo de su centro.

TE CUIDAS, NOS CUIDAS

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

bitarteko gela batean, ikasle horiek maskararik ez daramatenez, harremana estua izan dela pentsatuko da eta gaur egun edozein positibori ematen zaion tratamendu berdina emanen zaie. Ondorioz, gelako ikasle guztiek hamar eguneko berrogeialdia egin behako dute, eta PCR probak egiten zaizkie.

Gimeno kontseilariak azpimarratu du aurrez aurreko hezkuntza "izan dela beti Departamentuaren aukera". Horregatik, eta pandemiaren gaur egungo egoera zein den aintzat izanik, ekainean aurreikusi ziren 4 agertokietatik 2 zenbakiduna ezartzea erabaki da. Argitu duenez, "gaurkoturiko 2 egoera da, mestizoa", hainbat fasetako osagaiak jasotzen dituen, "helburu nagusia delarik irakasleen, gainerako langileen eta ikasleen osasuna bermatzea, baina ikasleen pedagogia- eta heziketa-baldintzak bermatzea ere bai; hori da gure interes gorena, eta interes orokorraren ardatza".

Ordutegi-tarte zabalagoa

Protokolo berriak ikastetxeen ordutegi-tarteak zabaltzea aurreikusten du, hezkuntza era egokiagoan antola dezaten. Hala, Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloetan eskolak 09:00 eta 14:30 artean antolatu beharko dira, eta horri jantoki-zerbitzua ere gehituko zaio. Bigarren Hezkuntzako zikloan, ikastetxeek 08:00 eta 15:00 artean ezarriko dituzte ordutegiak.

Dena dela, Hezkuntza Departamentuak, Osasun Departamentuak adieraziriko ildoei jarraikiz, sarrerak eta irteerak mailakatzeko eta sarbide guztiak erabiltzeko proposatuko die ikastetxeei, pilaketak saiheste aldera, kutsatzeen jatorrietako bat izan baitaitezke.

Ikastetxeak irekitzeari begira osasun-neurriak betetzeko behar den ekipamenduaren kostua (manparak, irakasleentzako maskarak, heziketa bereziko espezialistentzako babes-pantailak, gel hidroalkoholikoak, pedaldun paperontziak, COVID kasurik atzematekotan isolamendu-geletarako beharko den material espezifikoa, taldeak elkarrengandik aldentzeko seinaleak, etab.) 1,7 milioi eurokoa da, eta sare publikoan eta itunpekoan egiten diren hainbat jarduketa hartzen ditu barne. Ildo berean, indartu egiten da ikastetxeen garbiketa, gastu horren igoera 4 milioi eurokoa izanen delarik, sare publikoan eta itunpekoan.

Irakasle gehiago

Aurreko ikasturtearekin alderatuz nabarmen egin du gora kontratazio-kopuruak: guztizko kopurua 666 irakaslekoa da, jardunaldi baliokideetan, sare publiko eta pribatuetakoko ziklo guztietan. Horietatik, 412 kontratazio COVIDak eragindako oraingo egoeragatik egin dira: ordutegi-banaketak, indartzeak eta heziketarako laguntza. Beste 254 kontratazio irakasle profesional espezifikoenak izanen dira, pandemia dela eta ekainean ere aurreikusirik zeudenak; irakasle horiek zenbait arlo indartuko dituzte, hala nola barneratzea eta dibertsitateari arreta, besteak beste (orientatzaileak, irakasle laguntzaileak, PT, etxez etxeko arreta, etab.). Horiez gain, PROA+ programatik heldutako 72 irakasle berri izanen dira, dibertsitateari arreta emateko. Bestalde, jantokietarako 183 zaintzaile gehiago izanen dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzan, bere horretan jarraituko dute bizikidetzatalde egonkorretan espezializaturiko

irakasleek.

Bertan behera geratuko dira ikastetxeek antolaturiko eskolaz kanpoko jarduerak, baina guraso-elkarteek eta enpresa partikularrek antolaturiko goiztiarren zerbitzua eta halakoak mantentzea aztertuko da, Nafarroako Osasun Publikoko Institutuak ezarritako osasun-protokoloekin bateragarriak baldin badira. Jarduera osagarriak, berriz, osasun-egoerak ahalbidetuz gero egiten ahal izanen dira. Hala ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan lehentasuna emanen zaie talde egonkor desberdinetako ikasleen arteko elkarrekintzarik eragiten ez dutenei.

Hezkuntzaren digitalizatzea

Irakaskuntza online emanen den agertoki bat izateko aukera dagoenez gero, Hezkuntza Departamentuak 5 milioi euro inbertitu ditu material informatikoa eskuratzeko. 500 tablet daude ikasleentzat prest, hezkuntza-sistemaren hasierako mailetan konfinamendu-kasurik gertatuko balitz erabiltzeko. Geletatik streaming bidez lan egiteko eta ikasleei eskolak zuzenean jarraitzeko aukera emateko, 1.000 kamera ere erosi dira. Era berean, 4.000 Chromebook ordenagailu eskuratuko dira irailaren 25a baino lehen, eta beste 5.000 urrian.

Nafarroa Red.es sozietate publikoaren estatu mailako programari atxikita dagoenez, urtea bukatu aitzin beste 3.500 ekipamendu informatiko banatzen ahal izanen dira ikasleen artean. Erosketa horiek eginik, Hezkuntza Departamentuak hornidura digitala emanen die eskola publikoko ikasleei, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Batxilergoko 2.enera, arrakala digitalaren kontzeptua gaindituz, hura honezkero atzemanik eta itxirik baitago Nafarroako hezkuntza-sisteman.

Maskara erabiltzea

Beste alde batetik, Osasun kontseilariak, Santos Induráinek, Hezkuntzarekin batera diseinaturiko osasun-protokoloari buruzko argibideak eman ditu, eskola-eremurako neurri espezifikoak eta ikasleen arteko COVID-19 kasuen gestioa barne.

Hartara, maskara erabiltzeaz den bezainbatean, honakoa ezarri da printzipioz:

- Haur Hezkuntzako ikasleek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. mailen artekoek, biak barne, ez dute gela barnean maskararik eraman beharrik izanen. Aldiz, ikastetxera sartzean eta bertatik irtetean eraman beharko dute, baita gune komunetan eta eskolako garraiobideetan ere.
- Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aitzineko ikasleek maskara jantzi beharko dute, bai ikasgelaren barnean bai ikastetxeko sarreretan eta irteeretan, gune komunetan eta eskolako garraiobideetan ere.

Irakasleek eta ikastetxeetako langileek ere une oro eraman beharko dute maskara.

Hala ere, jarraibide hauek heldu den astean argitaratuko den foru-aginduan zehaztu eta eguneratuko dira, erkidegoen artean egiten ari den eztabaida teknikoa bukatu ondoren.

COVID-19 kasuen gestioa

Eskola barnean COVID-19koak izan litezkeen kasuen gestioaz den bezainbatean, protokoloak bi jarduketamota aurreikusten ditu, kasua Lehen Hezkuntzako 4. mailara bitarteko (hura barne) ikasle bati dagokion, edo 5. mailatik aurrerako bati.

Balizko sintomak dituen kasu bat agertuz gero, ikastetxeko arduradunek edo ikaslearen gurasoek harremanetan jarri beharko dute osasun-zentroarekin edo osasun-kontseiluko telefonoarekin (948 290 290), eta haiek erabakiko dute PCRa egin behar ote den eta berrogeialdi- eta bakartze-kondizioak zeintzuk izanen diren. Probaren emaitza ezagutzen ez den bitartean, ez da beharrezkoa izanen gelakideek berrogeialdia egitea.

Probaren emaitza positiboa bada, eta ikaslea Lehen Hezkuntzako 4. mailara artekoa bada, edo maila horretakoa, haren gelako gainerako ikasleak "harreman estukoak" direla pentsatuko da, gela barnean ez baitute maskararik erabiltzen. Beraz, PCR bana egingen zaie guztiei eta 10 eguneko berrogeialdia bete beharko dute.

Positiborik izatekotan Lehen Hezkuntzako 5. mailako edo hortik aurrerako ikasleen artean, maskara derrigorrezkoa denez eta segurtasun-distantzia uztea errazagoa denez, gelakideen artean "harreman estukoak" identifikatuko dira, eta horiei egingen zaizkie probak.

Osasun eta Hezkuntza departamentuek arlo bakoitzeko erreferentziazko langileak ezarriko dituzte, kasu susmagarri horien gestioa eraginkortasunez koordinatzeko.

Osasun kontseilariak aitortu du egoera "konplexu eta zailean" itzuliko direla ikasle-irakasleak ikasgeletara, baina adierazi du bere ustez erronka "nahiko ongi" gaindituko dela, konfinamenduaren ondoren lanera itzultzean gertatu zen bezala.

Ilido berean, lasaitasunezko mezua helarazi die familiei eta ikastetxeetako langileei, eta azpimarratu du bai osasun-sistema bai hezkuntzako maila guztietan "erantzuteko prest" daudela, prebentzioari zein sorospenari dagokienez. Oroitarazi du, gainera, haurren artean dagoela kutsatze gutxien, adin-tarte horretan sintomak gehienetan arinak izaten direla, eta udaberriaren bukaeran ikasgelak berriz ireki zituzten herrialdeetan ez zela izan kasu-gorakada nabarmenik.



☐ Gobernuak ezarri du Nafarroako ikasleek lanaldi jarraitua izango dutela urritik aurrera, COVID-19en aurkako segurtasun protokoloaren parte gisa